

BELEROPONTE TA EGODUN ZALDIA (ERROMA)

Pegaso esaten jakon zaldi bereizi bateri: Zaldi egoduna zan.

Pegaso jaio zanean, lurra jo eban bere anka bategaz eta ostikoa jo eban lekuan iturria sortu zan. Apolo ta Musa olerkariari eskiñi zan iturria.

Zaldi bizia ta oso basatia zan Pegaso, baiña lenago Minerba jainkoseak ezi eban eta gero Musa olerkariari eskiñi.

Lizia 'ko lurraldeko bizilagunak estu bizi ziran, mamutzar batek gorriak ikusi eragiten eutsezalako. Erdi leoi erdi auntz zan mamua eta atzeko ankak erensugearenen antzekoak eukazan. Mamuaren arnasea su biurtzen zan agotik urteten ebanean. Jakin ebazan Beleroponte 'k su-mamu orrek egiten ebazan okerrak eta bereala esan eutson erregeari berak ilgo ebala mamu ori. Pozik entzun eban erregeak berba ori.

Su-mamu ori ilteko ustean egoala, Beleropeonte Apolo 'ren eleizako sibila andereiñoagana joan zan, asmoa zelan betetu itauntzeko. Bear-bearrekoa ebala Pegaso egodun zaldia esan eutson onek.

Orduan Minerba 'gana joan zan Epiro 'ko erregearen semea zan Beleropente zaldi ori eskatzeko.

Minerba prest egoan laguntzeko eta agoko burdiñak

eta ugalak emon eutsozan eta Pegaso joaten zan ur-askara eroan eban Beleroponte. Au askearen atzean gorde zan. Pegaso askara urreratu eta edaten asi zanean agoko burdiñea jarri eutson eta menperatu jakon zaldia.

Aste batzuk geroago, ikusi eban baso batetik urteten su-mamua.. Beleroponte 'k jatsi-eragin eutson Pegaso 'ri geziaz errez zauritzeko eta zaldi gaiñean ondo tinkatuta bota eutson gezi zorrotzak il eban su-mamua.

Beleroponte 'k esker onak eta txaloak jaso ebazan bai erregearen aldetik eta bai erriaren izenean. Ainbat kalte egiten eutsen piztitzarra garbitu ebalako. Eta arrotu egin zan Beleroponte eta egun baten bere almena jenteari erakusteko pegaso-gaiñean zeru-goienera igotea erabagi eban.

Zeru goienera eltzeko igon eta igon joiala, Jupiter 'ek ikusi eban eta ausardi ori geiagia zala uste izanik zigortzeko erabagia artu eban.

Mando-euli bat bialdu eban eta euliak pegaso ziztatu eban. Asi zan zaldia saltoka eta bota eban gaiñean joiana. Or amildu zan goitik beera Beleroponte eta lurra jota lertu egin zan. Baiña Pegaso 'k aurrera jarraitu eban eta Olinpo 'ra eldu zanean, barriro Musa olerkariaren jolasgarri jarri eben.

